

BASKEPENSIONES 60 GAPI

INBERTSIO POLITIKA

Errenta aldakor nazional eta nazioartekoa erabakimenez erabilia, gehienez %60, epe ertain eta luzean errentagarritasun erakargarriak lortu nahi dituzten pertsonentzat.

2020/09/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%-0,61	%2,06	%-2,82	%-0,10	%0,80	%2,30	%3,19

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%-2,82	%14,10	%-8,67	%6,53	%1,43	%0,67	%4,84

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/09/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%14,06
Lurrunkortasun 3 urte**	%9,63

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Hilean zehar, inbertitzaileak asko kezkatu dira ekonomiaren hobetzearen joerarekin eta hainbat eremutan bizi den kezkarrekin. Bigarren hiruhilabeteko geldialdi historikoaren ondorengo berrakibatuzko ekonomikoko prozesuak jarraitzen du baina alde handiekin. Asko ari da suspertzen Txinan, eta zertxobait hobeto jasaten ari da AEB. Europan, aldiz, nahiko moteldu da, zerbitzuen arloan bereziki, ez hala manufaktura-eremuan. Europar blokearen kasuan, badirudi kutsaduren zenbatekoa bigarren aldiz gehitzen ari dela, erregistratutako transmisio tasa aintzat hartuta. Oro har, eta gai honen inguruan zarata handia badago ere, onartu beharra dago ekonomiaren hobetzea moteltzen duten eta kaltetutako sektoreen sufrimendua areagotzen duten

konfinamendu neurri berriak beharrezkoak direla, baina, bestetik, tratamendua eta prebentzioa ere asko hobetu direla, beraz, badirudi baztertu dela pandemiaren lehenengo momentuan bizi izan genuen jardueraren erabateko etena berriz gertatzea. Arlo geopolitikoan ere zarata handia izan da hilabete honetan. Erresuma Batuan Europar Batasunarekin negoziazioen tonua okerrerantz jun da, urte bukaeran Brexit gogorra bizitzearen aukerak gora eginez. AEBtan, azaroko hauteskunde presidentzialei begira kezka areagotu da. Egoera honetan Trump.ek mehatzatzen du berak porrot eginez gero ez lukela agintaldiaren bukaera ez dula erraztuko. Testuinguru horretan, errepublikano eta demokraten arteko eztabaida medio, herrialde osoaren pizgarri fiskalen planak tratatuta

geratu dira hilabete zehar. Egoera honetan oinarrituz, azken hilabete hauetan burtsek hartutako hobetzearen bidean, atsedean bat hartu dute iraileko hilabete honetan, Amerikarren kasuan martxoaz geroztik lehena, hain zuzen ere. S&P indizeak % 4 inguru galdu du. Nasdaq-a, aldiz, gehien igotako adierazlea, % 6 inguruko jeitsiera izan du. Europan, Eurostoxx-50 indizeak % 2,4 galdu du, berriz ere alde geografikoak eta sektorialak agerian utziaz. Hortaz, alemaniar selektiboak % 1,5 galdu du. Ibexa, aldiz, berriz ere amaitu du azkenengo postuan, % 3,6ko galerarekin, turismoko enpresei eta bankuei oso lotuta dagoelako. Nazioarteko gainerako indizeetan, japoniar burtsak lau bukatzea lortu du eta emergenteek, oro har, % 2 inguru galdu dute. Errenta finkoko merkatuek aktibo


arrisksuenetatik irtendako inbertsioak bildu dituzte. Horrek zor publikoko tasen jaitsiera ekarri du, bai Amerikakoa, baina are gehiago Alemaniakoa, zeinak % 0,52ko jaitsiera izan duen. Gainera, BCEren babesak eta Europako berregituratzeko funtsen onespak herrialde periferikoaren zorretan lasaitasuna eragin du, eta arrisku primetan murrizketak egitea ahalbidetu du, gainera. Espainiakoaren kasuan, 4 puntu erori da, 77 puntura arte. Errenta finko pribatuko bonuen diferentziales, aldiz, gorakadak izan dituzte, arriskuaren aurkako mugimenduaren ildo beretik. Dibisei dagokionez, dolarrak udan bizi izan zuen euroarekiko beherakada eten eta babes balio bilakatu da. 1,17\$/euroko balioarekin bukatu du hilea, 1,19\$/euroara iritsi ondoren, uda garaiko bi urtetako maximoa.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	385.519.523,95
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Altua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



Zorroaren banaketa



Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



BASKEPENSIONES 60 GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

BASKEPENSIONES 88 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

**ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES**
BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
[SIMULAGAILUA](#)**